III. Por faltas muy graves: Desde la suspensión de empleo y sueldo de treinta y un días a sesenta días, hasta la rescisión del contrato de trabajo o despido en los supuestos en que la falta fuera calificada en su grado máximo.

Capítulo IX

Salud laboral e IT

Artículo 45. Salud laboral.

Los trabajadores/as tienen derecho a una protección eficaz en materia de seguridad y salud en el trabajo.

En cumplimiento del deber de protección, el empresario/a deberá garantizar la seguridad y la salud de los trabajadores/as a su servicio en todos los aspectos relacionados con el trabajo. A estos efectos,

saburuak laneko arriskuen prebentzioa egin beharko du, bere erantzukizunen esparruan, enpresan prebentzio-jarduera txertatuta eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuta honako hauei dagokienez: laneko arriskuen prebentzioko plana; arriskuen ebaluazioa; langileen informazioa, kontsulta eta partaidetza, eta prestakuntza; larrialdiko eta arrisku larri eta hur-hurrekoaren kasuko jardun; osasunaren zaintza.

46. artikulua. Parte hartzeko eskubideak eta prebentzioa antolatzea.

Segurtasunari, osasunari eta ingurumenari buruzko batzorde paritario sektoriala sortuko da hitzarmeneko akordioen jarraipena egiteko, Laneko arriskuen prebentziolari buruzko Legea sektorean nola aplikatzen den ebaluatzearekin loturik.

Hitzarmena argitaratu eta gehienez bi hilabeteko epean, hitzarmena sinatu duten erakundeek batzorde hori osatu beharko dute; batzordea paritariora izango da eta sindikatuen ordezkartzan lau kide eta enpresa-ordezkaritzan beste lau egongo dira. Batzorde horretan, alderdiek bina aholkulari izan ditzakete, ahotsarekin baina botorik gabe.

Batzordea eratzeko bileran, bilera-egutegia zehaztu beharko da, bai eta funtzionamendua arautuko duen prozedura ere. Batzordearen funtzionamenduko akordioen erregimenari jarraiki, erabakiak hartzeko garaian batzordea osatzen duten bi ordezkartzetako bakoitzeko kideen erdiak gehi batek, gutxienez, aldeko botoa eman beharko dute.

Batzorde horretan hartzen diren erabakiak hitzarmenean txertatuko dira.

Batzorde horren lehentasuneko egitekoa ondorioak aztertzea da; hain zuzen ere, laneko arriskuen prebentziolari buruzko araudia aplikatzeak sektore-eremuan eragiten dituen ondorioak aztertzea, bai eta laneko arriskuei buruzko gaiak eta arrisku horien prebentziolari buruzkoak ere, oro har, sektoreko jarduera guztiak eraginpean hartzen badituzte.

Hona hemen Batzordearen beste eginkizun batzuk: sektoreko istripuekin loturiko informazioa koordinatzea, arlo horretan hobekuntzak eta prebentzio-kanpainak sustatzea, prestakuntza-programak koordinatzea eta garatzea enpresetako arduradunekin, ordezkariekin eta langileekin.

47. artikulua. Enpresa nagusia eta azpikontratatuak.

Lantoki berean langileen bidez jarduerak garatzen dituzten enpresa guztiek (bi edo gehiago) lan-arriskuei aurre egiteko prebentzio-ekintzak koordinatu behar dituzte eta lankidetzan aritu.

Horretarako, beharrezkoak diren koordinazioko baliabideak edo bitartekoak ezarriko dira, bai eta horiei buruz langileei eman beharreko informazioa ere. Informazioa emateko betebeharrak kontratatutako eragiketei ere aplikatu behar zaie honako kasu honetan: enpresa kontratatista edo azpikontratista langileek enpresa nagusiaren makinak, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo lanabesak erabiltzen dituztenean, nahiz eta enpresa kontratatista edo azpikontratista enpresa nagusiaren zentroan ez jardun.

1. Lantokiaren titular den enpresaburuari dagokio jarduerak bere lantokian garatzen dituzten enpresaburuari informazioa eta trebakuntza emateko betebeharrak, lantoki horretan detektatutako arriskuei buruz eta dagozkien babeseko eta prebentzioko neurriei buruz, bai eta aplikatu beharreko larrialdiko neurriei buruz ere, eraginpeko langileei helaraztearen.

2. Enpresa nagusiak kontratistek eta azpikontratistek laneko arriskuen prebentziolari buruzko arauak betetzen dituztela zaindu behar du, baldin eta kontrata edo azpikontrata enpresa nagusiaren berezko jarduerari dagozkion lanak edo zerbitzuak egiteari buruzkoa bada eta euren lantokietan garatzen badira jarduerok.

en el marco de sus responsabilidades, el empresario/a realizará la prevención de los riesgos laborales mediante la integración de la actividad preventiva en la empresa y la adopción de cuantas medidas sean necesarias para la protección de la seguridad y la salud de los trabajadores/as en materia de plan de prevención de riesgos laborales, evaluación de riesgos, información, consulta y participación y formación de los trabajadores/as, actuación en caso de emergencia y de riesgo grave e inminente, vigilancia de la salud.

Artículo 46. Derechos de participación y organización de la prevención.

Se creará una comisión paritaria sectorial de seguridad y salud y medio ambiente para el seguimiento de los acuerdos del convenio en materia de evaluación de la aplicación de la Ley de prevención de riesgos laborales en el sector.

Dentro del plazo máximo de dos meses desde la publicación del convenio, las organizaciones firmantes del mismo, procederán a constituir esta comisión, con carácter paritario e integradas por cuatro miembros de la representación sindical y cuatro miembros de la representación empresarial. En dicha comisión podrán integrarse con voz pero sin voto, dos asesores por cada una de las dos representaciones.

En la reunión de la constitución de dicha Comisión, deberá establecerse el calendario de reuniones así como el procedimiento por el que ha de regularse su funcionamiento. El régimen de acuerdos en el funcionamiento de dicha Comisión supondrá que la adopción de decisiones requerirá el voto favorable de al menos la mitad más uno de cada una de las dos representaciones integrantes de dicha comisión.

Los acuerdos que se adopten en el seno de dicha Comisión se incorporarán al cuerpo del convenio.

Dicha Comisión tendrá como misión prioritaria el estudio de las consecuencias que en el ámbito sectorial supone la aplicación de la normativa sobre prevención de riesgos laborales, así como el de los temas relativos a riesgos laborales y prevención de los mismos que afecten a las diferentes actividades del sector con carácter general.

Otras funciones de la comisión serán, las de coordinar la información en materia de siniestralidad en el sector, promover mejoras en esta materia y fomentar campañas de prevención, coordinar y desarrollar programas formativos tanto a responsables de empresas, delegados/as y trabajadores/as.

Artículo 47. Empresa principal y subcontratadas.

Todas las empresas, dos o más, que desarrollen actividades mediante sus trabajadores/as en un mismo centro de trabajo tienen la obligación de cooperar y coordinar su acción preventiva frente a los riesgos laborales.

A tal fin, se establecerán los recursos o medios de coordinación que sean necesarios, así como la información que sobre los mismos ha de facilitarse a sus respectivos trabajadores/as. Esta obligación de información es extensiva a las operaciones contratadas en los supuestos en que los trabajadores/as de la empresa contratista o subcontratista, aunque no preste servicios en el centro de la empresa principal, utilice la maquinaria, equipos, productos, materias primas o útiles proporcionados por esta última.

1. Corresponde al empresario/a titular del centro de trabajo la obligación de informar y de instruir a los empresarios, que desarrollen sus actividades en su centro, sobre los riesgos detectados en el mismo y sobre las medidas de protección y prevención correspondientes, así como sobre las medidas de emergencia a aplicar, para su traslado a los trabajadores/as afectados.

2. La empresa principal tiene la obligación de vigilar que los contratistas o subcontratistas cumplan la normativa sobre prevención de riesgos laborales siempre que la contrata o subcontrata se refiera a la realización de obras o servicios que correspondan a la propia actividad de la principal y que se desarrollen en sus propios centros de trabajo.

3. Aipaturiko lankidetzaren eginbeharrak eta informazio- zein trebakuntza-eginbeharrak lantoki horietan lan egiten duten langile autonomoei ere aplikatuko zaizkie.

Enpresa kontratistekin prebentzioko plangintza egingo da, bai eta enpresa kontratisten prebentzioko eskuliburu bat ere; honako alderdi hauek bildu behar ditu:

- Kontratatuarekin eta kontratistaren betekizun eta erantzukizunak, prebentzioari dagokionez.
- EGKren edo enpresa nagusiaren nahiz titularraren prebentzio-ordetzakien informazioa, kontsulta eta parte-hartzea obrak eta zerbitzuak kontratatzeari buruz eta hartutako prebentzio- eta babesneurriak aplikatu eta sustatzeko prozesuan prebentzio-ordetzakien lankidetzari buruz.
- Emandako informazioa idazki bidez helaraztea.
- Zer informazio mota eman behar duten; lan-istripuen estatistikak ez ezik, gertakari arruntek eragindako aldi baterako ezintasunagatikoa batak ere bildu behar dira.

- Langileen ordetzakien eskubideak.
- Enpresaburuak honako dokumentazio hau egin eta entregatu behar du:

- Enpresa nagusian azpikontratutako enpresen arriskuen ebaluazioa

- Enpresa-jardueren prebentzio-plana

- Arriskuen ebaluazioa

- Azpikontratatuaren prebentzio-eskuliburuak

- Segurtasun-ekipoak, norbera babesteko ekipamenduak

- Informazioa eta prestakuntza egiaztatzea

- Sartzeko eta lanerako baimenak

- Laneko istripuak jakinaraztea eta komunikatzea

- Larrialdiko neurriak

- Langileen informazioa

- Osasun-azterketak

48. artikulua. Arriskuen ebaluazioa.

Enpresaburuak langileen segurtasunerako eta osasunerako arriskuen aurre-ebaluazioa egingo du, betiere jardueraren izaera, bertako lanpostuen eta lanpostuak bete behar dituzten langileen ezaugarriak kontuan izanik. Ebaluazioa eguneratu egingo da lan baldintzak aldatzen direnean eta, osasunari eragindako kalteak direla bide, ebaluazioaz gogoeta egingo da beti, eta, hala behar izanez gero, ebaluazio hori berrikusi egingo da.

Ebaluazioaren emaitzek arrisku-egoerak ondorioztatzen badituzte, enpresaburuak gauzatuko ditu arrisku horiek ezabatu edo murrizteko eta kontrolatzeko behar besteko prebentzio-jarduerak. Jarduera horiek enpresaburuaren plangintzaren mende egongo dira, eta prebentzio-jarduera bakoitzean honako hauek adieraziko dira: egiteko epea, arduradunaren izendapena eta beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak.

49. artikulua. Prebentzio-plana.

Lan-arriskuen prebentzioa enpresako kudeaketa-sistema orokorrari gehitu behar zaio, bere baitan dituen jarduera guztietan nahiz bere hierarkia-maila guztietan; horretarako, lan-arriskuen prebentziarako plan bat ezarri eta aplikatuko da.

Laneko arriskuei aurrea hartzeko plan horrek, halaber, antolaketa-egitura, erantzukizunak, egitekoak, ohiturak, prozedurak, prozesuak eta beharrezko bitartekoak jaso behar ditu, enpresan arriskuei aurrea hartzeko, betiere erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

50. artikulua. Osasuna zaintzea.

Enpresaburuak bere zerbitzuko langileen osasuna zaintzeko arduraduna, lanak dituen arriskuen arabera, eta, beraz, nahitaezkoa da langileen osasun-egoera aldizka aztertzen dela bermatzea.

Banakako zaintza Osasun Ministerioak argitaratutako protokolo medikoak aplikatuz garatuko da, gai horretan indarrean dauden arauak modu egokian betetzeko berariazko osasun-azterketen bidez.

3. Los deberes de cooperación, de información e instrucción señalados se aplican a los trabajadores/as autónomos que desarrollen actividades en dichos centros de trabajo.

Se realizará una planificación preventiva con las empresas contratistas, así como la elaboración de un manual de prevención de empresas contratistas, donde figure:

- Las exigencias y responsabilidades del contratante y contratista en materia preventiva

- Información, consulta y participación de los delegados de prevención de la empresa principal o titular o del CES sobre contratación de obras y servicios, la cooperación de los delegados de prevención en la aplicación y fomento de las medidas de prevención y protección adoptadas.

- Que la información facilitada sea por escrito.

- Recoger el tipo de información que han de facilitar donde se incluya las estadísticas no solo de accidentes de trabajo sino que incluyan las bajas por ITCC.

- Derechos de los representantes de los trabajadores/as

- El empresario/a principal elaborará y entregará la documentación siguiente:

- Evaluación de riesgos de las empresas subcontratadas en la empresa principal

- Plan de prevención de actividades empresariales

- Evaluación de riesgos

- Manual de prevención de subcontratadas

- Equipos de seguridad, epis.

- Acreditación de la información y formación

- Permisos de entrada y trabajo

- Notificación y comunicaciones de aa.tt.

- Medidas de emergencia

- Información a trabajadores/as

- Exámenes de salud

Artículo 48. Evaluación de riesgos.

El empresario/a deberá realizar una evaluación inicial de los riesgos para la seguridad y salud de los trabajadores/as, teniendo en cuenta, con carácter general, la naturaleza de la actividad, las características de los puestos de trabajo existentes y de los trabajadores/as que deban desempeñarlos. La evaluación será actualizada cuando cambien las condiciones de trabajo y, en todo caso, se someterá a consideración y se revisará, si fuera necesario, con ocasión de los daños para la salud que se hayan producido.

Si los resultados de la evaluación prevista pusieran de manifiesto situaciones de riesgo, el empresario/a realizará aquellas actividades preventivas necesarias para eliminar o reducir y controlar tales riesgos. Dichas actividades serán objeto de planificación por el empresario/a, incluyendo para cada actividad preventiva el plazo para llevarla a cabo, la designación de responsables y los recursos humanos y materiales necesarios para su ejecución.

Artículo 49. Plan de prevención.

La prevención de riesgos laborales deberá integrarse en el sistema general de gestión de la empresa, tanto en el conjunto de sus actividades como en todos los niveles jerárquicos de ésta, a través de la implantación y aplicación de un plan de prevención de riesgos laborales.

Este plan de prevención de riesgos laborales deberá incluir la estructura organizativa, las responsabilidades, las funciones, las prácticas, los procedimientos, los procesos y los recursos necesarios para realizar la acción de prevención de riesgos en la empresa, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

Artículo 50. Vigilancia de la salud.

El empresario/a es el responsable de la vigilancia de la salud de los trabajadores/as a su servicio en función de los riesgos inherentes al trabajo y, por tanto, resulta obligatorio garantizar la vigilancia periódica del estado de salud de los trabajadores/as.

La vigilancia individual se desarrollará aplicando los protocolos médicos publicados por el Ministerio de Sanidad y Consumo, con exámenes de salud específicos dirigidos a un cumplimiento adecuado de la normativa vigente en esta materia.

Edonola ere, honako protokolo hauek kontuan izango dira:

Laneko dermatitisa, jarrera behartuak, goiko gorputz-adarraren mugimendu errepikakorrek eta asma okupazionala. Guztiak ere sektoreko arriskuekin loturik eta arriskuen ebaluazioaren emaitzen arabera eta langilearen ezaugarri eta inguruabarrak kontuan hartuta hartu beharko dira.

Zaintza hori langileak onartzen duenean bakarrik egin ahal izango da. Langilearen osasun-egoerak langile horren edo besteren bizitza edo osotasun fisiko nahiz psikikoa arriskuan jar dezakeela pentsatzeko zantzuak daudenean, neurri hori ez da borondatezkoa izango, derrigorrezkoa baizik, betiere langileen ordezkariak alde aurretik txostena eginda.

Banakako osasunaren zaintza urtean behin egingo da edo protokolo mediko ofizialetan arrisku-kolektiboen kasurako ezarritako maiztasunari jarraiki.

Langileen osasuna zaintzeko neurriak langilearen intimitateari eta pertsonaren duintasunari zor zaion begirunez gauzatu dira beti, eta osasun-egoerarekin zerikusia duen informazio oro isilpean gordeko da.

51. artikulua. Eragile kimikoekin loturiko arriskuen aurreko prebentzioa.

Lehenik, ingurumeneko muga-balioak kontuan hartu behar dira.

Eragile kimiko arriskutsu bat arnasteagatiko esposizioaren ondoriozko arriskuak ebaluatzean, eragilearen kontzentrazioak neurtu behar dira airean, langilearen arnas eremuan eta, horren ondoren, dagokion Ingurumeneko Muga Balioarekin alderatu.

Ebaluazioaren emaitzak aztertutakoan, enpresaburuak langileak arrisku horien aurrean babesteko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolamendukoak hartu beharko ditu, Prebentzio Planaren bitartez.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 18. eta 19. artikuluei jarraiki, enpresaburuak neurri egokiak hartuko ditu, langileek beharrezko informazio guztia jaso dezaten lantokian eragile kimikoen presentzia izatearen ondorioz.

Eragile kimiko arriskutsuekin erabiltzen diren ontzi eta hodi guztiek seinalizatuta egon behar dute. Etiketan, substantzia edo prestakinaren izena edo formula adierazi beharko da, bai eta arriskuari buruzko xehetasunak ere.

Igerilekuetako ura arazteko prozeduran kloroa edo haren deribatuek erabili behar badira, urak duen kloro librearen kopuruak ezin izango du gainditu litro bakoitzeko 0,20-0,60 miligramo.

Gai horri dagokionez, kasuan kasu, instalazioaren edo erakunde esleiztailearen titular edo jabearekin lankidetzeta eta koordinazio egokia izateko ahalegina egin behar da.

52. artikulua. Amatasunaren babesa.

Arriskuak neurtzerakoan, arrisku espezifiko bat eragin dezakeen edozein jardueratan, kontuan hartuko da andrazko langileen edo fetuaren osasunean era negatiboan eragin dezaketean lan-agentek, -prozedurak edo -baldintzak zein motatakoak diren, horien gradua eta haurdun dauden edo erditu berri diren langileek zenbat denbora ematen duten horien aurrean. Langile horien segurtasunerako eta osasunerako arriskuren bat badago, edo horien haurdunaldian edo edoskitzaroan eraginik bada, enpresaburuak beharrezkoak diren neurriak onartuko ditu arrisku hori jasan ez dezaten; horretarako, langilearen lan-baldintzak edo lan-denbora egokituko dira.

Beharrezkoa denean, neurri horiek txandakako lana ez egitea barne hartuko dute.

Egokitzea ezinezkoa denean edo, egokituta ere, lanpostu baten baldintzek haurdun dagoen langilearen edo fetuaren osasunean eragin negatiboa izan dezaketenean (betiere Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean langilea zaintzen duen medikuak hori egiaztatzen badu), langile horrek bere egoerarekin bateragarria den beste lanpostu edo

En este caso se tendrán en cuenta los siguientes protocolos:

Dermatitis laboral, posturas forzadas, movimientos repetidos de miembro superior y asma ocupacional. Todos ellos relacionados con los riesgos del sector, debiendo adoptarlos en función de los resultados de la evaluación de riesgos y las características y circunstancias del trabajador.

Esta vigilancia sólo podrá llevarse a cabo cuando el trabajador preste su consentimiento. De este carácter voluntario solo se exceptuarán, siendo obligatorio para los trabajadores/as cuando existan indicios de que de su estado de salud pueda derivarse un riesgo para la vida o integridad física o psíquica propia o de otros, previo informe de los representantes de los trabajadores/as.

La vigilancia de la salud individual se practicará con una periodicidad anual o de acuerdo a la frecuencia a colectivos de riesgo recogida en los protocolos médicos oficiales.

Las medidas de vigilancia y control de la salud de los trabajadores/as se llevarán a cabo respetando siempre el derecho a la intimidad y a la dignidad de las personas del trabajador y la confidencialidad de toda la información relacionada con su estado de salud.

Artículo 51. Prevención ante riesgos relacionados con agentes químicos.

En primer lugar se tendrán que tener en cuenta los valores límites ambientales.

La evaluación de los riesgos derivados de la exposición por inhalación a un agente químico peligroso deberá incluir la medición de las concentraciones del agente en el aire, en la zona de respiración del trabajador, y su posterior comparación con el Valor Límite Ambiental que corresponda.

A la vista de los resultados de la evaluación, el empresario/a deberá adoptar medidas técnicas y organizativas necesarias para proteger a los trabajadores/as frente a estos riesgos a través de un Plan de Prevención.

De conformidad con los artículos 18 y 19 de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales, el empresario/a deberá garantizar que los trabajadores/as y los representantes de los trabajadores/as reciban una formación e información adecuada sobre los riesgos derivados de la presencia de agentes químicos en el lugar de trabajo.

Todos los recipientes y conducciones utilizados para los agentes químicos peligrosos, deben estar señalizados. La información de la etiqueta tendrá que contemplar el nombre o fórmula de la sustancia o preparado peligroso y detalles sobre el riesgo.

Quando la depuración del agua en piscinas se haga por procedimientos que impliquen la utilización del cloro o sus derivados, la cantidad de cloro libre que el agua contenga no excederá nunca de 0,20 a 0,60 miligramos por litro.

En lo concerniente a esta materia debe procurarse una colaboración y coordinación adecuada y para con el titular o propietario de la instalación o entidad adjudicante, en su caso.

Artículo 52. Protección a la maternidad.

La evaluación de los riesgos deberá comprender la determinación de la naturaleza, el grado y la duración de la exposición de las trabajadoras en situación de embarazo o parto reciente, a agentes, procedimientos o condiciones de trabajo que puedan influir negativamente en la salud de las trabajadoras o del feto, en cualquier actividad susceptible de presentar un riesgo específico. Si existiera un riesgo para la seguridad y la salud o una posible repercusión sobre el embarazo y la lactancia el empresario/a adoptará las medidas necesarias para evitar la exposición a dicho riesgo, a través de una adaptación de las condiciones o del tiempo de trabajo de la trabajadora afectada.

Dichas medidas incluirán, cuando resulte necesario, la no realización de trabajos a turnos.

Quando la adaptación no resulte posible o, a pesar de tal adaptación, las condiciones de un puesto de trabajo pudieran influir negativamente en la salud de la trabajadora embarazada o del feto, y así lo certifique el médico que en el régimen de la Seguridad Social aplicable asista facultativamente a la trabajadora, ésta deberá

eginkizun bat bete beharko du. Enpresaburuak ezarri beharko du, langileen ordezkariari galdetu ondoren, arriskutik kanpo dauden lanpostuen zerrenda.

Lanpostua edo eginkizuna aldatzerakoan mugigarritasun funtzionaleko kasuetan ezarriko diren arau eta irizpideak hartuko dira aintzat eta aldaketa hori langilearen osasun-egoerak aurreko lanpostura itzultzea baimenduko dion arte egongo da indarrean. Bateragarria den lanpostua edo eginkizuna ez baldin badago, emakume langilea bere taldeari edo kategoria baliokideari ez dagokion lanpostu batera bidali ahal izango da, eta jatorriko lanpostuko lansarien multzoa jasotzeko eskubidea gordeko du.

Edoskitzaroan ere aplikatuko da hori guztia.

Emakume langilearen egoerarekin bateragarria den lanpostu edo eginkizunik ez baldin badago, langile horri lan-kontratua eten egingo zaio baina haurdunaldiko arriskuagatik prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du. Enpresak prestazio hori osatu beharko du bere ordainsariaren (edo oinarri arautzailearena, hobe baldin bada) ehuneko 100 osatu arte.

Haurdunaldiko arriskuaren kasuan, amatasun biologikoagatik kontratua eteten denean edota langilea aurreko lanpostura bueltatzeko edo haren egoerarekin bateragarria den beste lanpostu batean aritzeko gai denean, kontratua eteteari utziko zaio.

53. artikulua. Jazarpen psikologikoa lanean.

Alderdi sinatzaileek jakin badakite laneko jazarpen psikologiko eta morala indarra hartzen ari dela eta jazarpen horrek langileen segurtasunerako eta osasunerako ondorio larriak eragiten dituela; horretaz gain, enpresaren jardueraren ohiko garapenean ere ondorio garrantzitsuak sortzen ditu.

Jazarpen psikologikoa zera da, langile batek laneko eremuan jasaten duen zirikatzeko-egoera; langile horrek indarkeria psikologikoko jarrerak pairatzen ditu modu sistematikoan, behin eta berriz eta epe luze batez, eta horren guztiaren ondorioz isolatuta eta bakarrik geratzen da lan-esparruan; hori horrela izanik, gaixotasun psikosomatikoak, antsietatea eta depresioa izan ditzake. Jazarpen psikologikoen helburua langile horrek lanpostua uztea da.

Alderdi guztiak jarrera makurrei aurrea hartzeko konpromisoa hartu dute, langileekiko lan-jazarpeneko egoerak eragin ditzaketen jarrerei, hain zuzen, eta horrelako jarrerarik agertuz gero, ikertu eta desagerrarazteko konpromisoa hartu dute, bai eta laneko arriskutzat ebaluatzea ere.

54. artikulua. Lanerako Ezintasun Iragankorra.

Laneko istripuaren edo lanbide-gaixotasunaren kasuan, langileak soldata gordinaren ehuneko 100eko osagarria jasotzeko eskubidea izango du.

Gaixotasun arruntaren kasuan, kotizazio-oinarriaren guztizkora iritsi arte osatuko da soilik ospitaleratuz gero eta erabat osatu arte, baina aldi horretan ezin izango du jaso, inolaz ere, benetan lanean ari denean jasotzen duena baino ordainsari handiagorik.

55. artikulua. Sexu-jazarpenaren eta genero-indarkeriaren aurkako neurriak.

Enpresek lan-baldintza egokiak sustatu beharko dituzte sexu-jazarpena eta sexu-arrazoiengatik jazarpena saihesteko, eta prozedura espezifikoak ahalbidetuko dituzte horrelako egoerak prebenitzeko, eta egoera horiek pairatzen dituztenen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko.

Helburu horretarako, zenbait neurri ezarri ahal izango dira langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren, hala nola jarraibide egokien kodeak landu eta hedatzea, eta lanean sexu-jazarpenaren prebentzioko berriazko informazio-kanpainak edo prestakuntza-ekintzak egitea.

Langileen ordezkariak sexu-jazarpena eta sexu-arrazoiengatik jazarpena prebenitzen lagundu beharko dute langileak egoera horiei

desempeñar un puesto de trabajo o función diferente y compatible con su estado. El empresario/a deberá determinar, previa consulta con los representantes de los trabajadores/as, la relación de los puestos de trabajo exentos de riesgos a estos efectos.

El cambio de puesto o función se llevará a cabo de conformidad con las reglas y criterios que se apliquen en los supuestos de movilidad funcional y tendrá efectos hasta el momento en que el estado de salud de la trabajadora permita su reincorporación al anterior puesto. Si no existiese puesto de trabajo o función compatible la trabajadora podrá ser destinada a un puesto no correspondiente a su grupo o categoría equivalente, si bien conservará el derecho al conjunto de retribuciones de su puesto de origen.

Todo esto también será de aplicación al periodo de lactancia.

En caso de que no existiera ningún puesto de trabajo o función compatible con el estado de la trabajadora, ésta pasará a una situación de suspensión del contrato de trabajo con derecho a una prestación económica por riesgo durante el embarazo. La empresa complementará esta prestación hasta el 100 por ciento de su retribución (o de la base reguladora si es mejor).

En el supuesto de riesgo durante el embarazo, la suspensión del contrato finalizará el día en que se inicie la suspensión del contrato por maternidad biológica o desaparezca la imposibilidad de la trabajadora de reincorporarse a su puesto anterior o a otro compatible con su estado.

Artículo 53. Acoso psicológico en el trabajo.

Las partes firmantes son conscientes de la relevancia que está tomando el acoso psicológico y moral en el trabajo, así como de las graves consecuencias que de su existencia se derivan para la seguridad y salud de los trabajadores/as, y que además conlleva importantes consecuencias para el normal desarrollo de la actividad de la empresa.

El acoso psicológico se define como la situación de hostigamiento que sufre un trabajador en el ámbito laboral, sobre el que se ejercen conductas de violencia psicológica de forma sistemática, recurrente y durante un tiempo prolongado y que le conducen al aislamiento y extrañamiento social en el marco laboral, pudiendo causarles enfermedades psicósomáticas y estados de ansiedad y depresión, con el fin de provocar que la persona afectada abandone el puesto de trabajo.

Las partes se comprometen a prevenir aquellas prácticas consideradas perversas y que puedan implicar situaciones de acoso laboral hacia los trabajadores/as y, en caso de que aparezcan, a investigar y erradicarlas, así como a su evaluación como otro riesgo laboral.

Artículo 54. Incapacidad Transitoria.

En caso de accidente de trabajo o enfermedad profesional, el trabajador tendrá derecho a un complemento del 100 por ciento del salario bruto.

En caso de enfermedad común se complementa hasta el total de la base de cotización, sólo en caso de hospitalización y su recuperación, si bien durante dicho período no se podrá percibir, en ningún caso, una retribución superior a la que correspondiere durante la situación de trabajo efectivo.

Artículo 55. Medidas contra el acoso sexual y la violencia de género.

Las empresas deberán promover condiciones de trabajo que eviten el acoso sexual y el acoso por razón de sexo y arbitrar procedimientos específicos para su prevención y para dar cauce a las denuncias o reclamaciones que puedan formular quienes hayan sido objeto del mismo.

Con esta finalidad se podrán establecer medidas que deberán negociarse con los representantes de los trabajadores/as, tales como la elaboración y difusión de códigos de buenas prácticas, la realización de campañas informativas o acciones de formación específicas para la prevención del acoso sexual en el trabajo.

Los representantes de los trabajadores/as deberán contribuir a prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo

buruz sentsibilizatu eta enpresaren zuzendaritzari horrelako egoeretara eraman dezaketzen jarrera edo portaera ezagunen berri emanaz.

Lehen Xedapen Gehigarria.- Euskararen erabilera sustatzeari buruz.

Hitzarmen honen esparruan, enpresek enpresen barruko bizitzan euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa hartzen dute, ahal den heinean, kasu bakoitzean aplikatu ahal izanez gero: errotulazioan, inprimaki ofizialetan, jakinarazpenetan, nominetan, propagandan, etiketetan, barne-informazioetan eta abarretan.

Bigarren Xedapen Gehigarria.- Senar-emazteak eta izatezko bikoteak parekatzea.

Ezkontideentzat onartzen diren eskubide berberak (ezkontza-baimenean izan ezik) onartzen zaizkie haien artean ezkondu ez direnei eta lotura afektibo, egonkor eta iraunkorrean bizi diren pertsonaei; hori egiaztatzeko, bikoteak erregistro ofizialeko egiaztagiria aurkeztu beharko du. Erregistro ofizialik ez dagoen herrietan, egiaztagiri hori notario-aktaren bidez ordeztu daiteke.

Hirugarrenekin interes-gatazkak egonez gero, indarrean dagoen ordenamendu positiboaren arabera eskumena duen administrazio-agintaritzak edo agintaritzak judizialak irmo emandako ebazpenari jarraiki onartuko da dagokion eskubidea.

Hirugarren Xedapen Gehigarria.- Gatazka kolektiboak konpontzeko mekanismoei buruz.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek adierazi dute gatazka kolektiboak konpontzeko PRECO II/GKP prozedurak erabili behar direla beste edozein prozeduraren aurretik. Hortaz, hitzarmen hau sinatu duten alderdiek erabaki dute Lan Gatazkak Konpontzeko Borondatezko Prozedurei (PRECO/GKP) buruzko Lanbide Arteko Akordioari atxikitzea ontzat hartzea. Adierazitako akordioa 2000ko apirilaren 4ko EHAAan argitaratu zen.

Hitzarmen edo itun kolektiboa interpretatzean eta aplikatzean sortzen diren gatazkei dagokienez, PRECO/GKPan xedatutakoari jarraiki, Hitzarmeneko Batzorde Mistora jo beharko da lehendabizi.

Alderdi biek berariaz adostu dute, nolana ere, desadostasunak ebazteko, Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioaren adiskidetzearn eta bitartekotzaren prozedurak bete beharko dituztela. Arbitraje-prozedurari dagokienez, alderdi biek men egingo diotela adosten dutenean bakarrik aplikatuko da.

mediante la sensibilización de los trabajadores y trabajadoras frente al mismo y la información a la dirección de la empresa de las conductas o comportamientos de que tuvieran conocimiento y que pudieran propiciarlo.

Disposición adicional primera.- Sobre fomento uso del euskera.

Las empresas, en el marco del presente convenio, asumen el compromiso, y en la medida que sea de posible aplicación en cada caso, de fomentar el uso del euskera en la vida interna de las mismas: en aspectos tales como rotulaciones, impresos oficiales, notificaciones, nóminas, propaganda, etiquetaje, informaciones internas, etc...

Disposición adicional segunda.- Equiparación matrimonios y parejas de hecho.

Se reconocen los mismos derechos que a los cónyuges en matrimonio, a las personas que no habiéndose casado entre ellos, conviven en unión efectiva, estable y duradera, previa justificación de estos extremos mediante certificación de inscripción en el correspondiente registro oficial de parejas de hecho, excepto en el permiso de matrimonio. Dicha certificación podrá sustituirse, en aquellas poblaciones donde no exista registro oficial, mediante acta notarial.

En el supuesto de conflictos de intereses con terceros, el reconocimiento del derecho que corresponda se realizará de conformidad con la resolución que, de manera firme, se dicte por la autoridad administrativa o judicial competente, conforme al ordenamiento positivo vigente.

Disposición adicional tercera.- Sobre mecanismos resolución conflicto colectivo.

Las partes firmantes de este convenio manifiestan su convicción de que los procedimientos del PRECO II deberían ser utilizados con preferencia a cualquier otro para la resolución de los conflictos colectivos. En consecuencia, las partes firmantes del presente convenio acuerdan suscribir su adhesión al Acuerdo Interprofesional sobre Procedimientos Voluntarios para la Resolución de Conflictos Laborales PRECO, publicado en el BOPV de 4 de abril de 2000.

En los conflictos de interpretación y aplicación de este convenio, conforme a lo estipulado en el PRECO, previamente se deberá acudir a la Comisión Paritaria del convenio.

Ambas partes acuerdan expresamente que, en todo caso, los procesos a los que cabrá someterse para solventar las discrepancias serán los de conciliación y de mediación del acuerdo interprofesional PRECO. El procedimiento de arbitraje se aplicará únicamente mediante acuerdo de sometimiento al mismo por ambas partes.

I. eranskina
Soldata-etaulak
2013

Taldeak	Kategoriak	Eginkizun adierazgarriak	Urteko lanaldia	Soldata gordina	
1. taldea	Monitorea	Oinarrian musika duten ikastaro eta jarduera fisikoak eta kirol-arlokoak ematea kirol-instalazioetan.	1.596 ordu	15,68 euro/ordua	
		Beste horrenbeste oinarrian musikarik gabe ere.	1.596 ordu	14,71 euro/ordua	
	1A monitorea	Kirol-instalazioetan jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak ematea.	1.596 ordu	1. urtea: 18.765,13 euro 2. urtea: 21.267,15 euro	
		Beste horrenbeste oinarrian musikarik gabe ere.	1.596 ordu	1. urtea: 17.610,35 euro 2. urtea: 19.958,40 euro	
	1B monitorea	Kirol-instalazioetan eta kirol-ekitaldietan jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak ematea, kontrolatzea.	1.596 ordu	1. urtea: 16.263,11 euro 2. urtea: 18.765,13 euro	
		Beste horrenbeste oinarrian musikarik gabe ere.	1.596 ordu	1. urtea: 15.262,31 euro 2. urtea: 17.610,35 euro	
2. taldea	Soroslea	Kirol-instalazioetan ur-baliabideak zaintzea eta kontrolatzea.	1.596 ordu	4,71 euro/ordua 12,06 euro/ordua	Jaiegunekoa Asteazehar
	1A soroslea	Kirol-instalazioetan ur-baliabideak zaintzea eta kontrolatzea. Enpresan eskarmentu/prestakuntzarik ez duten langileak.	1.596 ordu	1. urtea: 14.434,72 euro 2. urtea: 16.359,35 euro	
3. taldea	OLT/EUD	Kirol-instalazioetan botikin-zerbitzua ematea: lehen sorospenak eta oinarritzko laguntza.	1.770 ordu	16.359,35 euro/urte	
4. taldea	Mantentze-lanak/ Lorezaintza	Kirol-instalazioetan mantentze-lanetako eta lorezaintzako zerbitzuak egitea.	1.770 ordu	10.895,88 euro/urte	
	Atezaina/instalazioen kontrola	Kirol-instalazioetako sarrera kontrolatzea.	1.770 ordu	10.895,88 euro/urte	
	Garbiketa	Kirol-instalazioen eguneroko garbiketa eta higieena.	1.770 ordu	10.895,88 euro/urte	
	Zaintzailea/Txirristazaina	Instalazioen eta makinaren funtzionamendua zaintzea, bai eta berdeguneak zaintzea ere	1.770 ordu	10.895,88 euro/urte	
	Estetizista	Larruzala zaintzeko teknikak aplikatzea; tresna, gailu eta aparatuen egoera higienikoa onatzea ziurtatzea.	1.770 ordu	10.620 euro/urte	
	Harreragilea	Telefonoa hartzea eta bisitariei arreta ematea, harreragunea mantentzea.	1.770 ordu	10.620 euro/urte	
	Administrari-laguntzailea	Laneko antolamendu-unitatearen berriazko prozesuak egiteko beharrezkoak diren administrazio-jarduerak egitea.	1.770 ordu	10.620 euro/urte	

Soldata-etaulak
2014

Taldeak	Kategoriak	Eginkizun adierazgarriak	Urteko lanaldia	Soldata gordina	
1. taldea	Monitorea	Oinarrian musika duten ikastaro eta jarduera fisikoak eta kirol-arlokoak ematea kirol-instalazioetan.	1.596 ordu	15,84 euro/ordu	
		Beste horrenbeste oinarrian musikarik gabe ere.	1.596 ordu	14,86 euro/ordu	
	1A monitorea	Langileek eduki beharreko oinarritzko prestakuntza lehen mailako lanbide-heziketa, eskola-graduata edo haien baliokidea izango da, edo egiten duen lanerako eskatzen den berariazko titulazioa, enpresan eskarmentu/prestakuntzarik gabe.	1.596 ordu	1. urtea: 18.952,78 euro 2. urtea: 21.479,82 euro	
		Beste horrenbeste oinarrian musikarik gabe ere.	1.596 ordu	1. urtea: 17.786,45 euro 2. urtea: 20.157,98 euro	
	1B monitorea	Titulaziorik gabeko langileak, kirol-arloko errekonozimenduak dituztela eta enpresan eskarmentu/prestakuntzarik gabe.	1.596 ordu	1. urtea: 16.425,74 euro 2. urtea: 18.952,78 euro	
		Beste horrenbeste oinarrian musikarik gabe ere.	1.596 ordu	1. urtea: 15.414,93 euro 2. urtea: 17.786,45 euro	
2. taldea	Soroslea	Kirol-instalazioetan ur-baliabideak zaintzea eta kontrolatzea.	1.596 ordu	14,86 euro/ordu	Jaiegunekoa
	1A soroslea	Kirol-instalazioetan ur-baliabideak zaintzea eta kontrolatzea. Enpresan eskarmentu/prestakuntzarik ez duten langileak.	1.596 ordu	12,18 euro/ordu	Astean zehar
3. taldea	OLT/EUD	Kirol-instalazioetan botikin-zerbitzua ematea: lehen sorospenak eta oinarritzko laguntza.	1.770 ordu	16.522,94 euro/urte	
4. taldea	Mantentze-lanak/Lorezaintza	Kirol-instalazioetan mantentze-lanetako eta lorezaintzako zerbitzuak egitea.	1.770 ordu	11.004,84 euro/urte	
	Atezaina/instalazioen kontrola	Kirol-instalazioetako sarrera kontrolatzea.	1.770 ordu	11.004,84 euro/urte	
	Garbiketa	Kirol-instalazioen eguneroko garbiketa eta higieena.	1.770 ordu	11.004,84 euro/urte	
	Zaintzailea/Txirrista zaina	Instalazioen eta makinaren funtzionamendua zaintzea, bai eta berdeguneak zaintzea ere	1.770 ordu	11.004,84 euro/urte	
	Estetizista	Larruzala zaintzeko teknikak aplikatzea; tresna, gailu eta aparatuen egoera higienikoa ona dela ziurtatzea.	1.770 ordu	10.726,20 euro/urte	
	Harreragilea	Telefonia hartzea eta bisitariari arreta ematea, harreragunea mantentzea.	1.770 ordu	10.726,20 euro/urte	
	Administrari-laguntzailea	Laneko antolamendu-unitatearen berariazko prozesuak egiteko beharrezkoak diren administrazio-jarduerak egitea.	1.770 ordu	10.726,20 euro/urte	

Anexo I
Tablas salariales
2013

Grupos	Categorías	Funciones enunciativas	Jornada anual	Salario bruto
Grupo 1	Monitor/a	Impartir cursos y actividades físico-deportivas con base musical en instalaciones deportivas.	1.596 horas	15,68 euros/h.
		Idem sin base musical.	1.596 horas	14,71 euros/h.
	Monitor/a 1A	Impartir actividades físico-deportivas en instalaciones deportivas	1.596 horas	1º año: 18.765,13 euros 2º año: 21.267,15 euros
		Idem sin base musical	1.596 horas	1º año: 17.610,35 euros 2º año: 19.958,40 euros
	Monitor/a 1B	Impartir, controlar actividades físico-deportivas en instalaciones deportivas y eventos deportivos.	1.596 horas	1º año: 16.263,11 euros 2º año: 18.765,13 euros
		Idem sin base musical	1.596 horas	1º año: 15.262,31 euros 2º año: 17.610,35 euros
Grupo 2	Socorrista	Vigilancia y control del medio acuático en instalaciones deportivas.	1.596 horas	14,71 euros/h Festivo 12,06 euros/h Laboral
	Socorrista 1 A	Vigilancia y control del medio acuático en instalaciones deportivas. Personal sin experiencia/formación empresa	1.596 horas	1º.año: 14.434,72 euros 2º año: 16.359,35 euros
Grupo 3	ATS/DUE	Prestación del servicio de botiquines en instalaciones deportivas: atención primaria y primeros auxilios	1.770 horas	16.359,35 euros/añual
Grupo 4	Mantenimiento/Jardinería	Prestación de servicios de mantenimiento y jardinería en instalaciones deportivas	1.770 horas	10.895,88 euros/añual
	Portero/Control instalaciones	Control de accesos a instalaciones deportivas	1.770 horas	10.895,88 euros/añual
	Limpieza	Higiene y limpieza diaria de instalaciones deportivas	1.770 horas	10.895,88 euros/añual
	Vigilante/Toboganero	Vigilancia del funcionamiento de las instalaciones y maquinaria, así como atención de las zonas verdes	1.770 horas	10.895,88 euros/añual
	Esteticista	Aplicar técnicas de cuidado de la piel; asegurar el buen estado higiénico de herramientas, utensilios y aparatos.	1.770 horas	10.620 euros/añual
	Recepcionista	Atención telefónica y visitantes, mantenimiento área recepción.	1.770 horas	10.620 euros/añual
	Auxiliar administrativo	Realización actividades administrativas necesarias para desarrollar los procesos específicos de la unidad organizativa en la que desempeñe su trabajo.	1.770 horas	10.620 euros/añual

Tablas salariales
2014

Grupos	Categorías	Funciones enunciativas	Jornada anual	Salario bruto
Grupo 1	Monitor/a	Impartir cursos y actividades físico-deportivas con base musical en instalaciones deportivas.	1.596 horas	15,84 euros/h.
		Idem sin base musical.	1.596 horas	14,86 euros/h.
	Monitor/a 1A	Personal con titulación básica requerida, equivalente a formación profesional de primer grado, al graduado escolar o a la titulación específica a la tarea que desempeñe, sin experiencia/formación empresa.	1.596 horas	1º año: 18.952,78 euros 2º año: 21.479,82 euros
		Idem sin base musical	1.596 horas	1º año: 17.786,45 euros 2º año: 20.157,98 euros
	Monitor/a 1B	Personal sin titulación, con reconocimientos a nivel deportivo, sin experiencia/formación empresa.	1.596 horas	1º año: 16.425,74 euros 2º año: 18.952,78 euros
		Idem sin base musical	1.596 horas	1º año: 15.414,93 euros 2º año: 17.786,45 euros
Grupo 2	Socorrista	Vigilancia y control del medio acuático en instalaciones deportivas.	1.596 horas	14,86 euros/h. Festivo
				12,18 euros/h. Laboral
	Socorrista 1 A	Vigilancia y control del medio acuático en instalaciones deportivas. Personal sin experiencia/formación empresa	1.596 horas	1º año: 14.579,07 euros 2º año: 16.522,94 euros
Grupo 3	ATS/DUE	Prestación del servicio de botiquines en instalaciones deportivas: atención primaria y primeros auxilios.	1.770 horas	16.522,94 euros/año
Grupo 4	Mantenimiento/Jardinería	Prestación de servicios de mantenimiento y jardinería en instalaciones deportivas	1.770 horas	11.004,84 euros/año
	Portero/Control instalaciones	Control de accesos a instalaciones deportivas	1.770 horas	11.004,84 euros/año
	Limpieza	Higiene y limpieza diaria de instalaciones deportivas	1.770 horas	11.004,84 euros/año
	Vigilante/Tobogano	Vigilancia del funcionamiento de las instalaciones y maquinaria, así como atención de las zonas verdes	1.770 horas	11.004,84 euros/año
	Esteticista	Aplicar técnicas de cuidado de la piel; asegurar el buen estado higiénico de herramientas, utensilios y aparatos.	1.770 horas	10.726,20 euros/año
	Recepcionista	Atención telefónica y visitantes, mantenimiento área recepción	1.770 horas	10.726,20 euros/año
	Auxiliar administrativo	Realización actividades administrativas necesarias para desarrollar los procesos específicos de la unidad organizativa en la que desempeñe su trabajo.	1.770 horas	10.726,20 euros/año